



Muskizko Udalak Lan Talde bat sortu du, COVID-19 Koronobirusaren egoera aztertzeko eta bere hedapenari galga jartzeko neurriak har daitezzen.

Eusko Jaurilaritzako Osasun Sailaren gomendioak aztertu eta gero, Lan Taldeak honako neurri hauek hartu ditu:

**GARBITASUNA**

Udal eraikinetako, komunetako eta bide publikoetako garbiketa sendotzea.

**JUBILATUEN EGOITZA:**

Ixteko agindua ematea, gaurtik aurrera.

**PERTSONA NAGUSIENTZAKO JARDUERA ETA TAILERRAK**

Bertan behera uztea, gaurtik aurrera udal eraikin guztietan.

**EGUNEKO ZENTROA:**

Eguneko Zentroko, Atsedeen Zentroko, Jantokiko eta Autonomiaren Sustapeneko erabiltzaileak bakar-bakarrik sartu ahalko dira.

**ZERBITZU ZENTROA:**

Helduen heziketako jarduerak bertan behera uztea (HHI).

**KIROL INSTALAZIOAK:**

Jarduera guztiak bertan behera uztea eta instalazioetako garbitasuna sendotzea.

**LIBURUTEGIA:**

Ixteko agindua ematea gaurtik aurrera.

**GAZTEGUNEA ETA LUDOTEKA:**

Ixteko agindua ematea gaurtik aurrera.

**AUZOETAKO GIZARTE LOKALAK** (La Llosaseko Eskola, Pobeñako Gizarte Lokalak, Kobaroneko Etxea, La Rigadako Landetxea, San Julianeko Eskolak, Pobeñako Aterpetxea)

Ixteko agindua ematea.

**KULTUR ETXEA:**

Bereziki haurrentzako jarduerak bertan behera uzteko erabakia hartu da.

**KALE GARBIKETAKO ZERBITZUA:**

Edukiontzietako irekiera-palankak desinfektatzeko lanak sendotzea, bai eta udal eraikinetako sarbideak, eskailerak eta arrapala mekanikoak, anbulatorioak, haur parkeak eta autobus geltokiak ere.

Hala ere, arazo honen garapenaren arabera bestelako neurriak hartu ahalko dira eta horrelakorik behar izanez gero, hori guztia behar bezala zabalduko litzateke sare sozialetan, udal webgunean eta wifi pantailetan.

Era berean, herritarrei eskatzen zaie udal eraikinetara behar-beharrezkoa den kasuetan bakarrik sar daitezzen.